

EAEko bost gaztetatik bat museoetara joaten da

Bizkaiko gazteak Arabakoak edo Gipuzkoakoak baino gehixeago joaten dira museoetara

Maiatzaren 18a, **Museoen Nazioarteko Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k Euskadiko gazteek museoetara joateko ohiturari buruzko datu batzuk zabaldu nahi ditu.


Hori jakiteko, Gazteen Euskal Behatokiak 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu zituen 2012ko martxoan Euskal Autonomia Erkidego osoan (EAE).

Elkarrizketatutako gazteen erantzunen arabera, 15 eta 29 urte bitartekoen % 20,3 inkestaren aurreko hiru hilabeteetan museoren batera bertaratu zirela esan dezakegu.

Museoetara hurbildutako gazteen portzentajea pixka bat igo da azken bost urteotan; horrela 2007-2008 aldian % 17,7 izatetik 2012 urtean % 20,3 izatera pasatu dira. 2007-2008 aldiko datuak Eusko Jaurlaritzaren [Kulturaren Behatokiak](#) emandakoak dira.

Bestalde, EAEko biztalaria osoan museoetara bertaratu direnen ehunekoa gazteen artekoa baino zertxobait txikiagoa da (% 16,6, hain zuzen ere). EAEko biztanleria osorako datuok 2010-2011 aldiari dagozkio eta [Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak](#) kaleratu ditu.

2010-2011 aldi horretan ere, Espainiako 15 eta 29 urte bitarteko gazteei zegokien ehunekoa % 18,3koa zen, hau da, Euskadiko gazteena baino pixka bat baxuagoa (Ministerioaren datuen arabera, berriro ere).



Euskadiko gazteengan arreta guztia jarriz gero, zera esan dezakegu: museoetara joandako gazteen ehunekoak pixka bat altuagoak dira Bizkaian (% 21,1) Araban (% 19,3) eta Gipuzkoan (% 19,5) baino. Bestalde, museoetara bertaratzea ohikoagoa da hiriburuetan (% 22,5) 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan baino (azken horietan gazteen % 16,1 bakarrik joan dira museoren batera hiru hilabete horietan).

Sexuaren arabera, nesken % 21,3 eta mutilen % 19,4 joan direla aipa daiteke. Bestalde, adinaren arabera hauexek dira bertaratzearen ehunekoak: 15 eta 19 urte bitartekoen artean % 20,7; 20 eta 24 urte bitartekoen artean % 16,2 eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 23,2.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

